

pa-po

papiers collés: 1912an Georges Braquek eta Pablo Picassok beren *papiers collés* izenekoekin zirizto bat ireki zuten koadroaren ohizko eraketa-prozesuan, oihalgaineko pinturaren gain hule-puskak edota tapizatzeo paper-zatiak erabiltzen hasi zirenean. Picassok hulezko adabakiak kolatu zituen bere Bodegoia sareko sillarekin koadroan eta Braquek bere Fruta-azalak eta basoa ikatz-marrakian hormako paper-puskak kolatu zituen egur-hariaren irudiak gainean pintatuta. Pintatutako gainazalean objektu materialak sartuz egindako *papiers collés* hauek osatzen dute kolage-teknikaren oinarria, gero, batez ere dada mugimenduan eta surrealismoan, hain erabilera zabaldua eta hain maila ona lortu zuen kolagearen oinarria.

Braqueren eta Picassoren *papiers collés* hauetan azpimarratzekoa da nola ez diren gauzen izaera materialari, adibidez hulearen edo horma-paperaren izate horri beren izaerari buruzko espresioa ematen saiatzen, baizik eta nola kolore-eremu abstraktu bat markatzeko erabiltzen diren, kolore-eremu horiekin lehenengo planoan jarritako koloreen tonalitate berezia, beren jatorrizko kalitatearekin.

perspektiba: Sakontasunaren efektu plastikoa koadroaren planoan erreprezentatzea da, Leonardo da Vincik jadanik bere garaian erabili zuen proiektzio-prozedura jakin baten bidez. Sistema horretan lerro paralelo guztiak ihes-puntu batean elkartzen dira eta objektuak gero eta txikiago azaltzen dira koadroaren planotik urrunagozten doazen neurrian.

pilaketa: Arte objektualaren konfigurazio-modu bat izendatzen duen terminoa da, eta, hain zuzen ere erabilitako gauzak, mota berekoak edo desberdinetakoak, pilatu edota plastikozko ontzikien barruan morderkatuz egiten da. Arte materikoaren metodo hau errealismo berriko plastizistek erabiltzen dute nagusiki, adibidez Arman, Tinguely,

Spoerri, César eta Chamberlainek; metodo horrek propietate estetiko berriak eranstean dizkie aurkitutako tresna horiei (*objets trouvés*), kontsumoko gizartearen hondakin direnei.

pintura konbinatua: ikus combine painting, Zehar 14. zenbakia

piquagea: Teknika hau batez ere Lucio Fontana artista italiarrak erabili zuen, bere oleo-koadroetan eta bere plastika berezietan, oihalezko edo metal pulituzko plano kolorebakarrak arraildu edo zartatu eta ebakiak eta zuloak eginez. Arraildura horrek ez du inolako sunsiketa-ekintzarik adierazi nahi, gainazalaren "ezpaziamenduzko" ekintza-prozesua bera nabarmendu baizik, ebakiaren ertzak erdi-irekita uzten baititu. Ebakitze-fenomenoa bera indar plastiko konfiguratuak bat garatzeko indar bezala erakusten da.

pintura metafisica: 1917. urte hasieran, arte-mundu italiararen baitan, ordurarte manifestu futuristak erabat gainezkatzen zuela baitzegoen, korrante estilistiko klasizista-intimista bat sortu zen bizitzara, pintura metafisica deitzen dena. Pintura metafisiko hau Carlo Carrá eta Giorgio Chiricok hasi zuten, biak Ferrarako ospitale militarrean sendatzen aurkitzen ziren bitartean. Italia garaiko hiri horretan, bere plaza zabal, antzinako estatua, harresi monumental eta *quattrocento*-ko freskoekin ukituta, Carrá erabat aldendu zen dinamismo futuristaren mundutik, nahiz eta 1917ra arte bere pintura mugimendu harekin lotua egon zen. Italiako maisu handien gain egindago atzerabegirako gogoeta honekin, bikaintasuna eta maiestatesutasuna benetako errealtate ideal bezala goraiatzeko zituena bere mintzaira serio horrekin, Carrá ezetsi egin zuen futuristek egiten zuten funtzionalismo eta teknikaren goraiapamen hura. Inpresio sentsorial guztien aldebereketasunaren printzipio futuris-

tari objektibitate noble eta sinplearen gain aplikatutako inistentzia sosegatua kontrajarri zitzaion. Pittura metafisica-ren helmuga lortzeko: "pinturaren bitartez psikologia metafisiko berria eraikitzea" (De Chirico), beharrezkoa da gauzak beren ingurune baldintzatzaile normalen logika funtzionaletik dispentsatuta egotea eta beren isolamenduaren sosegu magikoan kokatuta aurkitzea.

Inkomunikazio honek, gauzen esperientzia enigmatiko-mitiko bat sortzen du arte-obran, alegia objektuak, bestela arrunt-arrunta eta guztiz normala izango litzatekeen objektuak, irabazi egiten du enfasi patetiko eta indar poetikoan. Objektua bere ulertezintasun magiko eta bere isolamendu lasaiarekin, norberaren intimotasunean sartzen den baliabide figuratu bihurtzen da. Objektu lekuz kanporatuaren bitartez lortutako esentzia metafisikoaren figurazio honek ekarri zuen pittura metafisica-k bere garapenik oparoen ondoren etorriko zen surrealismoan aurkituko zuen arte-gaiki formulatzea.

poesia konkretua: Testu, soinu eta irudiz osatutako hizkeraren sintesi bat da, eta lehenik ere aurrekariak izan ditu irudiz ilustratutako Antzinateko poemetan, poema figuratibo barrokoetan eta futurismoaren ahozko poesia optofonetikoan. Poesiak jadanik ez du bere espresio liriko hitzen semantikan oinarritzen, irudiaren eta hitzaren hizkuntz batasunean baizik. Elementu fonetikoak eta irudi figuratiboak parean jartzen dira material liriko bezala hitzaren ondoan. Testu-irudi dadaistaren bitartez, hitzaren betiko balio semantikoa guztiz erlatibizatuta geratzen da poesia konkretuan (1920. urte inguruan). Silaben eta fonemen hotsezko elementua aske geratzen da, letra-segida baten irudi idiomatikoa bezalaxe, eta aldi berean kontsumatu egiten da material idiomatikoa konkretuaren eta objektu-poesiaren arteko nahastura, collage-aren muntaketa-teknikaren bitartez (Kurt Schwitters). Letrak, zeinu den aldetik, bere benetako irudi-balioa zabaltzen du, eta hala, fonema, irudi figuratibo eta hitz-zatien sintesitik, zentzu poetikozko kontestura berriak ateratzen dira irakurtzeko (Franz Mon, Diter Rot, Jiri Kolár, Ferdinand Kriwet).

poesia simultaneo: Futuristen asmakizun bat da, poesia fonetiko bat, ekintzazko deklamazio batekin antzetzten dena antzerki-gestikulazio bapateko batekin konbinatuta. *Mixed-media* bidezko hots-modulazio teatral, musikal eta poetikoen sintesi hau, dadaistek perfektionatu zuten gero, eta Zuricheko Voltaire kabaretak osatu zuen poesia simultaneoaren lehenengo "ekintza-foruma". ■